

UDALBATZA OSOA

Bilkura-akta

Ohiko bilkura

Data: 2016ko maiatzaren 11, asteazkena.

2016ko ekainaren 8an akta onesteko bilkuran egindako oharra biltzen ditu.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, adierazitako egunaren 20:00etan, honako zinegotzi jaun-andre hauek bildu dira Udalbatzaren osoko bilkura egiteko: Agustín Hervías Salinas (PP), Luis Felipe Campos Latre (PP), Diana Rubio Lafuente (PP), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (Eh Bildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (Eh Bildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE). Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV) alkate-udalburu jauna da bilkuraren buru.

Bertaratu ez diren zinegotziak: Dolores Ruiz Zuazo (PP).

Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra da bilkurako idazkari.

Alkate-udalburu jaunak deitu du bilkura, alde aurretik eta arauzko publikizitatearekin. Honako hau da

Eguneko aztergaien zerrenda

1. Onestea 2016ko apirilaren 19an eginiko bilkurako akta.
2. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.
3. **Kultura, Turismoa, Jaiak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Informazio Batzordea.**
 - 3.1. Berdegune pribatuaren ureztatze sistema hornitzeko zerbitzua Udalak ematea.
 - 3.2. Behin betiko onestea bide publikoetan mahaia, aulkiak eta mahaitxoak jartzea arautzen duen ordenantza.
 - 3.3. Behin betiko onestea udalaren jabetza publikoaren erabilera pribatuaren edo aprobetxamendu bereziaren tasa arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketa.
 - 3.4. Arabako Errioxako Ur Kontsortzioan udal ordezkariak izendatzea.
4. **Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Informazio Batzordea.**
5. **Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Informazio Batzordea:**
6. **Ekonomia, Ogasuna eta Enplegua, eta Hirigintza Batzordea**
 - 6.1. Esleitzeko igerilekuen kontratua.
 - 6.2. Bazterra aretoaren erabilerari buruzko araudi erregulatzaila.

Azken puntua) Galderak eta eskeak

Bilkuraren izaerarekin eta eguneko aztergaien zerrendarekin bat etorritik, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira:

1. Onestea 2016ko apirilaren 19an eginiko bilkurako akta.

Alkate-udalburu jaunak aktari oharrik egin nahi dioten galdetu die zinegotzi jaun-andreei. Gamarra jauna: Nik hitz egiten dudan batean Gamarra jaunak zerbait esan duela aipatzen da, baina erdizka geratzen da, ez da esaldia amaitzen.

Alkate jauna: Uste dut Idazkari jaunak zinegotziei euren ekarpenak egiteko esaten diela, fideltasun osoz isla daitezen.

Hau erabaki da:

- 1) Onestea 2016ko apirilaren 13ko bilkura-akta.

Aldeko botoak: 9 (bederatzi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona

Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), Diana Rubio Lafuente (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).
Abstentzioak: 1 (bat); Agustín Hervías Salinas (PP).

Abstenitu den zinegotziak esan du bera aurreko bilkuran egon ez zelako abstenitu dela.

2. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.

Idazkari jaunak, alkate-udalburu jaunak hala eskatuta, Alkatetzaren dekretu eta ebazpenen berri eman du, zehazki aurreko ohiko bilkuratik aurrera emandakoenak: 2016ko 65/16etik 84/16era bitartekoak.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditu dira.

3.1. Berdegune pribatuen ureztatze sistema hornitzeko zerbitzua Udalak ematea.

Alkate jaunak gaia aztergaien zerrendatik kentzea proposatu du, espedientera gehitzeko erabakia babesten duten txostenak, Ureztatzaileen Komunitateak, Ura eta Lorategia Komunitateak, eta ihesak hautemateko konpainiaren enpresak idatzitakoak.

Gamarra jauna: Beharrezkoa da kaltetuei jakinaraztea erabakiren bat hartu aurretik.

Alkate jauna: Jakinarazi da ia 80.000 litrok alde egiten dutela egunero ureztatzeko ur-saretik. Enpresak esan zuen ihesa orokorra zela, eta ez daukagula jakiterik ur hori euri-uren sarera joan den ala ez. Hori dela eta, hartuta lehen erabakia ixtea izan zen, helmuga jakin arte. Etxebizitzetako berdegune pribatuak ureztatzeko emakida bat da; ondoko etxebizitza batzuk ez dute zerbitzu hau.

Villanueva Gutiérrez jauna: Uste nuen gaur amaituko genuela gai honekin. Ureztatzeko sare horrek ihes txikiak ditu. Udalak ez du ureztatzeko zerbitzua bizilagunei eskaintzeko beharrik.

Hervías jauna: Arazoa larria da, eta txostenak erantsi behar dira alkateari dagokion erabaki bat hartu aurretik. Udalbatzak ureztatzeko ordenantzari buruzko iritzia eman ahalko du.

Alkate jauna: Gure ustez guztiok eman behar dugu gaiari buruzko iritzia. Zerbitzua aldi baterako ireki da San Prudenzion, programatutako ureztatzeengatik.

Hau erabaki da:

- 1) Egunko aztergaien zerrendatik kentzea: Berdegune pribatuen ureztatze sistema hornitzeko zerbitzua Udalak ematea. Erabakia babesten duten dokumentuak edo txostenak espedientera gehituta berriz hartuko dugu gaia.

Aldeko botoak: 8 (zortzi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Agustín Hervías Salinas (PP), Luis Felipe Campos Latre (PP), Diana Rubio Lafuente (PP) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

Abstentzioak: 2 (bi); José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion).

3.2. Behin betiko onestea bide publikoetan mahaiak, aulkiak eta mahaitxoak jartzea arautzen duen ordenantza.

Ordenantza aldatzeko proposamenean 6, 8 eta 14 artikuluetan xedatutako gogoratu da:

Pleno del Ayuntamiento; Acta de sesión 11 – V – 2016;

6. artikulua.- Terrazak ixteko ordutegia

1.- Terrazak ixteko ordutegia ikuskizun publikoen eta aisiako jardueren ordutegiari buruzko arautegikoa izango da. Ikuskizunen dekretuari jarraiki.

8. artikulua.- Altzariak bide publikotik kentzea

Terrazaren funtzionamendu-ordutegia amaitu ondoren, eta gehienez 30 minutuko epean, titularrak elementu guztiak bide publikotik atera eta establezimenduaren barruan utzi beharko ditu lokala itxita dagoen bitartean. Edo altzariak jaso eta kandadu batekin lotuko dira, ixteko ordutegitik kanpo altzari horiek bide publikoan jarri ahal ez izateko.

Mahaiak eta aulkiak bide publikoan jartzeko lizentzia duen titularrak okupatzen duen eremua garbitu beharko du.

14.- Lizentziak emateko prozedura

1.- Terraza berri bat jartzeko edo emandako lizentzia aldatzeko eskaerekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

a) Lokaleko jarduerarako lizentzia eman izanaren ziurtagiria, eta jarduera sailkatzen duen txostenean zehaztutako neurri zuzentzaileak betetzen direla ziurtatzen duen ziurtagiria.

b) Jarri nahi diren altzarien zerrenda, zenbakia, materiala eta kolorea zehaztuz, ordenantza honen 5. artikuluan zehaztutako baldintzei jarraiki.

c) Terrazaren planoak 1:500 eskalan; bertan islatu beharko da okupatuko duen azalera, espaloien zabalera, autobus geltokiak, kioskoak, jada badauden hiri-altzariak.

Aurrekariak:

1) Oiongo Udalak 2016ko martxoaren 8an hasiera batean onetsi zuen bide publikoa mahai, aulki eta mahaitxoekin okupatzeko ordenantza.

2) Bide publikoak mahai, aulki eta mahaitxoekin okupatzeko ordenantza arautzailearen espedientea jendaurrean ikusgai jarri da udaletxeko iragarki-taulan eta 2016ko martxoaren 23ko 34 zenbakiko Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean.

3) Ikusgai egon den denboran ez da alegaziorik aurkeztu.

Hau erabaki da:

1) Behin betiko onestea bide publikoetan mahaiak, aulkiak eta mahaitxoak jartzea arautzen duen ordenantza. Onetsitako ordenantza osoa jendaurrean ikusgai jarri da, Tokiko Araubidearen Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Aldeko botoak: 10 (hamar); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Agustín Hervías Salinas (PP), Luis Felipe Campos Latre (PP), Diana Rubio Lafuente (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

Gamarra jauna: Objektiboa iruditzen zait, baina trebeak izan behar dugu; legea betearazi behar dugu, baina arazorik gabe.

Villanueva jauna: inork ez ditu gogoko arauak, eta gutxiago horrelakoak. Hainbat galdera daude: nork izendatzen du plazan okupatuko den azalera, taberna guztiek ez dute aurrealde berdina...

Hervías jauna: Tabernen gaitasun ekonomikoan ez eragitea.

3.3. Behin betiko onestea udalaren jabetza publikoaren erabilera pribatuaren edo aprobetxamendu bereziaren tasa araupetzen duen ordenantza fiskalaren aldaketa,

zehazki C epigrafea, jabetza publikoan aulkiak, mahaiak eta mahaitxoak jartzeari buruzkoa.

Honen berri eman da: jendaurrean ikusgai egon zen epean ez da erreklamaziorik aurkeztu. Hortaz, ordenantzaren behin behineko aldaketa behin betikotzat jotzen da, honako tarifa honekin:

Mahai bat eta 4 aulki, denboraldiko: 40 euro.

Lizentziaren titular bakoitzaren maximoa: 8 mahai eta 32 aulki.

Haizearen aurkako instalazioak, edo antzekoak: 40 €/unitateko.

Eskerrak emateko jai-egunetan 4 mahai eta 16 aulki jarri ahalko dira.

Berogailua duen modulu bat jartzeagatik: 30 €/denboraldiko

Bertaratuak jakinaren gainean gelditu dira.

3.4. Arabako Errioxako Ur Kontsortzioan udal ordezkariak izendatzea.

Aurrekariak:

- 1) Jakinaraztea Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz zinegotziak (Oiongo Udaleko ordezkari titularra Arabako Errioxako Ur Kontsortzioan) eta José Manuel Villanueva Gutiérrez zinegotziak (Oiongo Udaleko ordezkari Arabako Errioxako Ur Kontsortzioan) kargu hori utzi dutela, beraien lanarekin bateragarria ez zelako. Uko egitearen berri eman zaio Arabako Errioxako Ur Kontsortzioari.
- 2) Arabako Errioxako Ur Kontsortzioaren Estatutueto 14. artikulua (1999ko apirilaren 14ko 40 zenbakiko ALHAO) honako hau dio 1. atalean: Udalbatzak aukeratuko ditu tokiko erakundeetako ordezkariak. Halaber, Udalbatza Osoak izendatuko ditu ordezkariak kargua galtzen dutenean, joan ezin dutenean edo titularra gaixo dagoenerako.
- 3) Tokiko araudia arautzea: Tokiko Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21 eta 22 artikulua; Tokiko Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendua eta Erregimen Juridikoaren Araudiko 38 c), 41 eta 42 artikulua.
- 4) Bozerramaileek proposatutako zinegotziak izan daitezke hautagaiak. Ordezkari izendatzeko bozketan gehiengo sinplea lortu beharko du. Ordezkariak aukeratzeko bozketak arrunt bat egingo da.

Hau erabaki da:

- 1) Onartzea Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz eta Jose Manuel Villanueva Gutiérrez zinegotzien uko egiteak, Oiongo Udaleko ordezkari titularra eta ordezkaria Arabako Errioxako Ur Kontsortzioan, hurrenez hurren.
- 2) José Antonio Tarragona Elejalde jauna izendatzea Oiongo Udaleko ordezkari titular gisa Arabako Errioxako Ur Kontsortzioan Batzar Nagusian.
- 3) Eduardo Terroba Cabezón jauna izendatzea Oiongo Udaleko ordezkari gisa Arabako Errioxako Ur Kontsortzioan Batzar Nagusian

Aldeko botoak: 4 (lau); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV) eta José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV)

Aurkako botoak: 3 (hiru); Agustín Hervías Salinas (PP), Luis Felipe Campos Latre (PP) eta Diana Rubio Lafuente (PP).

Abstentzioak: 3 (hiru); José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

Hervías jauna: Guk aurka bozkatuko dugu; gure ustez alkateak izan beharko luke ordezkaria, liberazio osoa horretarako dauka eta.

Gamarra jauna: Ez daukagu denok karga bera, baina ordezkari izan nahi duena kargatu behar dela iruditzen zait niri...

4. **Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Informazio Batzordea.**
5. **Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Informazio Batzordea:**
6. **Ekonomia, Ogasuna eta Enplegua, eta Hirigintza Batzordea**

6.1. Esleitzea igerilekuen kontratua.

Gamarra jauna: Estu-estu daude, ez dago besterik...

Villanueva jauna: Zerbitzuen enpresa publiko bat sortzea gustatuko litzaiguke. Gu abstenitu egingo gara, beste batzuetan egin ditugun proposamenekin koherenteak izan nahi dugulako.

Hervías jauna: Gamarra jaunak esandakoarekin bat nator.

Aurrekariak:

1. Udal igerilekuaren eta La Espina kaleko beste kirol-instalazioen kontratazio espedientea, administrazio baldintzen eta agindu teknikoen pleguarekin, ohiko izapidearekin, eta esleitzeko hainbat irizpiderekin.
2. Kontratazio-mahaiak kontratatzeako organoari igorritako proposamena.
3. Lizitatzailari eskatzea kontratua esleitu aurretik arrazoitzeko dokumentazioa aurkeztu dezan.

Hau erabaki da:

1. Onestea Udal igerilekuaren eta La Espina kaleko beste kirol-instalazioen kontratazio espedientea, administrazio baldintzen eta agindu teknikoen plegua jasotzen duena, ohiko izapidearekin, eta esleitzeko hainbat irizpiderekin.
2. Kontratua esleitzea UTE BPX Agua y Jardín SL enpresari 49.000 gehi BEZari dagozkion 10.290 eurotan. 24 hilabeteko berme-epea eskaini du (hasieran aurreikusitakoa handitu beharko da), eta fakturak ordaintzeko epea 30 egunetan luzatu du, pleguak zehaztutako 30 eguneko (gutxienez) epeari gehituko zaiona. Arrazoiak: aurkeztu den eskaini bakarra izan da, Pleguko baldintzak betetzen ditu, eta 70 puntu lortu ditu.
3. Lizitazioan parte-hartzeko, behin-behineko berme gisa jarrita bermea itzultzea edo ezeztatzea.
4. Bederatzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorritik. Herri-administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onesten duen urriaren 12ko 1098/2001 Legearen arau aplikagarriak diotenari jarraiki alkateari ematea artikuluan kontratazio-organismoari ematen zaizkion eskumenak artikulua hauetan: 73.1, 74, 88 (1, 2 eta 3 atalak), 80.4, 87.1, 94.1, 95, 96.3, 115, (1 eta 2 atalak), 118, 121, 123.1, 138, 139.4, 142.2, 144.2, 155.4 y 162.2.
5. Bederatzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorritik. Herri-administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onesten duen urriaren 12ko 1098/2001 Legearen arau aplikagarriak diotenari jarraiki alkateari ematea artikuluan kontratazio-organismoari ematen zaizkion eskumenak artikulua hauetan: 73.1, 74, 88 (1, 2 eta 3 atalak), 80.4, 87.1, 94.1, 95, 96.3, 115, (1 eta 2 atalak), 118, 121, 123.1, 138, 139.4, 142.2, 144.2, 155.4 y 162.2. .
6. Eduardo Terroba Cabezón alkateari ahalmena ematea beharrezkoak diren dokumentuak sinatzeko.

Aldeko botoak: 8 (zortzi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona

Elejalde (EAJ-PNV), Agustín Hervías Salinas (PP), Luis Felipe Campos Latre (PP), Diana Rubio Lafuente (PP) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).
Abstentzioak: 2 (bi); José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion).

6.2. Bazterra aretoaren erabilerari buruzko araudi erregulatzalea.

Aurrekariak:

- 1) Bazterra aretoaren erabilera arautzen duen araudia. Oinarriak 1995eko uztailaren 28an onetsi ziren, eta 1999ko urriaren 29an aldatu ziren.
- 2) Proposamenaren aldaketak hau dio: aretoa ezingo da erabili bilera politikoak edo sindikalak egiteko, eta Oiongo “Santa María” Hirugarren Adinekoen Elkartek ez du aurretik baimena eman beharko.

Hau erabaki da:

- 1) Bazterra aretoaren erabilera arautzen duen araudiaren aldaketa onestea. Araudi osoa jendaurrean ikusgai jarriko da, jendeak jakin dezan eta bete dezan, udaletxeko iragarki- taulan.

Aldeko botoak: 7 (zazpi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

Aurkako botoak: 3 (hiru); Agustín Hervías Salinas (PP), Luis Felipe Campos Latre (PP) eta Diana Rubio Lafuente (PP).

Gamarra jauna: Ados nago. Aretoa herriarena da, eta elkartea ere...

Villanueva jauna: Erabakia txalotzen dugu. Gure taldeak areto hori asko erabiltzen du, eta ez dizkigute inoiz oztoporik jarri ez legegintzaldi honetan, ezta aurrekoan ere.

Hervías jauna: Aurka bozkatu dugu, badaudelako erabilera politikoko eta sindikaleko beste areto batzuk, baina erretiratuek ez dute beste tokirik.

Alkate jauna: Hirugarren adinekoei lotutako espazio bat da; Jubilatuen Elkartek ez du asko erabiltzen aretoa, eta udalak egindako eskaerengatik izango ez balitz, aretoa beti hutsik egongo litzateke. Arauak berak dio Hirugarren Adinekoen Elkartek izango duela lehentasuna aretoa erabiltzerakoan.

Azken puntua) Galderak eta eskeak

Villanueva jauna: Zergatik ez da garbitzen San Justo parkea?

Alkate jauna: Lore-parke bat da, eta bere garbiketa Aldundiari dagokio. Jakin behar dena da zergatik utzi dion garbitzeari.

Hervías jauna: Zergatik ez dituzte itzulpenak egiten udaletxeko langileek? Zergatik kontratatu dugu kanpoko enpresa bat?

Alkate jauna: Ziurtatutako hizkuntza eskakizuna duten langileak ez dira egokienak itzulpenak egiteko, eta ez da beraien eginkizuna. Eta merkeagoa da denbora eta espezialitate aldetik itzulpen zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa batek egitea itzulpenak hizkuntza ofizialetakoren batera.

Martínez de San Vicente Apiñániz andre irten da (Eh Bildu Oion).

Jorratzeko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 21:15ean (bilkura 20:00etan hasi zen), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oyón-Oionen, 2016ko maiatzaren 30ean.

Udaleko idazkaria:

Presidenteak OE:

El acta se redacta en el idioma en el que se desarrolla la sesión, castellano y se traduce al euskera por Euskalgintza Bulegoa S.L.